



UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASKETAK HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU-ERASOAK (2. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2023/2024

ARLOA: Gizarte eta Legezientziak

KREDITUAK: 4,00 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 200,00 € (Asegurua: 4 €, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Leire Imaz Zubiaur

AURKEZPENA

Ikastaroaren azken helburua da sexu-erasoen biktima izan diren haur eta nerabeei lagundu nahi dieten profesionalak edo etorkizuneko profesionalak prestatzea. Haur edo nerabe horrek ondoan dituen profesionalengandik jaso dezakeen erantzuna funtsezkoa izango da errekuperatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da sexu-erasoen arazoa hurbiletik ezagutzea eta laguntzeko, babesteko eta berriz biktimizatzea saihesteko beharrezkoak diren tresnak eskuratzea.

ZURE BILA GABILTZA

Sexu-erasoen biktima izan diren haur eta nerabeei lagundu nahi dieten profesional edo etorkizuneko profesionalak bilatzen ditugu. Haurrak ondoan dituen profesionalengandik jasoko duen erantzunak berebiziko garrantzia izango da bere errekuperazioan. Horretarako, ezinbestekoa da profesionalak haurrek jasandako sexu-erasoen errealitatea ezagutzea eta biktima lagundu, babestu eta birbiktimizazioa saihesteko beharrezko tresnak eskuratzea.

IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaroa gehigarri profesionala izango da hezkuntzaren, osasunaren, gizarte-zerbitzuen, segurtasunaren eta justiziaren arloetan. Haur eta nerabeen aurkako sexu-erasoen arazoetan esku-hartze espezifikoa egiteko prestakuntza kualifikatua islatuko du.



BALDINTZAK

Lehentasuna izango dute haur eta nerabeekin esku-hartze zuzena egiten duten profesionalak. Hedapen-ikastaroaren Zuzendaritza saiatuko da arazo horretan esku hartzen duten esparruetako (osasuna, segurtasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta justizia) profesionalen arteko oreka aurkitzen.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2024/01/20-tik 2024/06/30-era

EMATEKO TOKIA: On-line

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saila

HELBIDEA: Sarriena z/g 48940 LEIOA UPV/EHU

TELEFONOA: 94 601 3210 / 605 743 222

POSTA ELEKTRONIKOA: leire.imaz@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.